

# Zer berri dago POCTEFAn?

NAVARREFA 2021-2027 LEHEN EKITALDIA

#NavarreInEurope

**Interreg**  
**POCTEFA**



Cofinanciado por  
la UNIÓN EUROPEA  
Cofinancé par  
l'UNION EUROPÉENNE

Gobierno  
de Navarra  Nafarroako  
Gobernua



**Nafarroako Gobernua**

**Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintza eta Euskarazko Departamentua**

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia

Eskualdeen arteko Lankidetzeta eta Kanpo Herritarren Zerbitzua

+34 848 42 19 81

<https://poctefa.navarra.es/eu/>

[cooperacion.transfronteriza@navarra.es](mailto:cooperacion.transfronteriza@navarra.es)

Yanguas y Miranda Kalea 27, 1. solairua - 31003 Iruña

**POCTEFAREN Kudeaketa Agintaritza — Idazkaritza Bateratua**

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoa

+ 34 974 363 100

[info@poctefa.eu](mailto:info@poctefa.eu)

**POCTEFA 2021-2027 programaren dokumentu ofizialak**

<https://www.poctefa.eu/>


LG NA 2046-2022

# POCTEFA 2021-2027, **Interreg VI-A** **Espainia-Frantzia-** **Andorra Lurraldeen** **arteko Lankidetzako** **Programa,** hainbat berrikuntza nabarmenekin iritsi da denboraldi berri honetara.

Horiek azaltzeko eta mugaldeko lurraldeen arteko lankidetzaproiektuak sustatzen dituzten erakundeei argibideak emateko asmoz, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak gida hau sortu du, Eskualdeen Arteko eta Mugaz Gaindiko Lankidetzatalaren bidez, NAVARREFA 2021-2027\* lehen ekitaldiaren oinarria izango dena.

POCTEFAREN bidez proiektu bat finantzatu nahian bazabiltza, jarraitu orain emango dizkizugun aholkuei. Bidea erraztuko dizute!

(\*) Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak POCTEFA programan oinarrituta informaziorako, kapitalizaziorako eta sareko lanerako sortu duen nafar topagunea da Navarrefa.



**POCTEFA 2021-2027  
herrialde mugakideen  
arteko lankidetzarako  
Europako programa  
bat da, eta Pirinioen  
bi aldetara dauden  
erakundeek diseinatu eta  
garatutako proiektuak  
finantzatzen ditu.**

**Programa Kudeatzeko  
Agintaria Pirinioetako  
Lan Elkartea da (PLE).  
Partzuergo hori zazpi  
herrialdek osatzen dute:  
Akitania Berria, Okzitania,  
Euskadi, Nafarroa, Aragoi,  
Katalunia eta Andorra.**

# Lankidetzarako aukera bat

## 109.275

KM<sup>2</sup>-KO AZALERA

## 14

MILIOI BIZTANLE

## 243

MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Zenbateko hori eman du Europako Batasunak Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsaren (FEDER) bidez POCTEFA 2021-2027rako; 54 milioi gehiago aurreko aldiarekin alderatuz. Zenbateko horretatik 227 milioi euro herrialde mugakideetarako proiektuak garatzeko bideratzen da, eta gainerakoa Programa kudeatzeko edo Laguntza Teknikorako (LT) erabiltzen da.

## 65%

FINANTZIAZIO-TASA FEDER PROIEKTUETARAKO

Estatuko dirulaguntzen mende dauden erakunde eta jarduerak izan ezik.

### HAU DA PROGRAMAREN PERIMETRO HAUTAGARRIA (FINANTZAGARRIA)



### Erakunde publiko eta pribatuei zuzenduta

Izaera juridikoa duten erakunde eta entitateei zuzenduta dago, publikoak nahiz pribatuak izan (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak).

### Gutxienez bi estatutako bazkideak

Proiektuetan parte hartzen duten bazkideak gutxienez bi estatutakoak izan behar dira (ES-FR-AND).

### Proiektuen hautapena deialdi publikoen bidez

Proiektuak deialdi publikoen bidez hautatuko dira. Proiektu bat aurkeztu nahi duten erakunde sustatzaileak deialdi bakoitzaren data eta irizpidetara egokitu behar dira, eta horiek [www.poctefa.eu](http://www.poctefa.eu) webgunean argitaratuko dira.

# 2021-2027 aldirako berrikuntzak

## Mendebaldeko Eremu Funtzionala

Europako Batasunaren kohesio-politikek eremu funtzionalen ikuspegia sustatzen dute HP5 helburu politiko berriaren bidez: «Europa herritarrengandik gertuago». Hori da POCTEFA 2021-2027ren berritasun handia. Programari lurraldetasun handiagoa emango dio, aukera ematen baitu perimetro txikiagoetan lan egiteko (eremu funtzionalak), hain zuzen, elkarrekiko eragin eta mendekotasun handia duten bizitza-eremuetan.

Bost eremu funtzional diseinatu dira Pirinioetan zehar, eta Nafarroa Mendebaldeko Eremu Funtzionalan dago.

1. LEHENTASUNAK  
Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren ekintza-planak hiru lehentasun ditu:

1. ardatza: Mugitzea.
2. ardatza: Komunikatzea.
3. ardatza: Lan egitea.

2. GOBERNANTZA  
Euroeskualdeak koordinatuko du Mendebaldeko Eremu Funtzionala, lurralde-estrategia integratuen eta proiektuetarako laguntza-deialdien bidez.

## Proiektu txikien deialdia

POCTEFA 2021-2027ren beste berritasun handia da hori: finantza-bolumen mugatua duten proiektuei laguntzea, orain arte programan parte hartzeko gaitasuna edo aukera izan ez zuten eragile berriak sar daitezzen.

Proiektu txikiek ezaugarri hauek izango dituzte:  
» 24 hilabeteko iraupena, gehienez.  
» 80.000 €-ko aurrekontua gehienez.

Proiektuak norgehiagokako deialdi espezifikoaren bidez hautatuko dira.

## 2021-2027 EREMU FUNTZIONALAK



# POCTEFAN arrakasta izateko dekalogoia

1

## **POCTEFAN bazaude, zure hedadura Europarra da**

Zure proiektuarekin era aktiboan lagunduko duzu Europako Batasuneko estrategia eta politikak betetzen.

2

## **POCTEFAN lankidetzan mugaz gaindikoa da**

Zure proiektua lankidetzan egiteak bakarka egiteak baino balio gehiago badu, mugaz gaindiko balio gehigarria du.

3

## **Egin POCTEFA ikastaro azkar bat**

Pertsona gakoek esandakoa irakurtzeak eta haiei galdetzeak bidea erraztuko dizute. Ez egin lan bakarrik, laguntzeko prest dagoen jende ugari dago.

4

## **Bidaideak zure POCTEFA proiektuaren arrakastarako gakoak izango dira**

Ez hautatu irizpiderik gabe, gaitasun tekniko eta estrategikoen arabera eta proiektuan garatuko duten funtzioaren arabera hautatu kolaboratzaileak.

5

## **Koherentziari esku-hartze logika deritzo POCTEFAN**

Programa honetan, oso garrantzitsua da konpondu beharreko arazoaren eta hura ebazteko hautatu diren ekintzen arteko korrelazioak koherentzia izatea.

6

## **Ez dago guztia asmatuta, POCTEFA ideia berrien bila ari da**

Proiektuen berrikuntza da Europako kalitate-irizpide deritzenen elementu garrantzitsuena.

7

## **Zure POCTEFA proiektuarekin, Europa konprometituago bat lortzen lagunduko duzu**

Zipriztindu zure proiektua Europako Batasunak ingurumenaren alde eta bazterkeriaren kontra dituen oinarrizko printzipioekin.

8

## **Lasai egon, POCTEFAN plagioa ez da iruzur egitea**

Proiektuen komunikazioa, kapitalizazioa, transferentzia eta erreplikatzeko gaitasunari esker, emaitzak toki gehiagotara iritsiko dira.

9

## **Ez baikor, ez ezkor, POCTEFAN errealista izan beharra dago**

Lankidetzaproiektu bat egitea zaila izan daiteke. Saihestu ustekabekoak. Egin proiektuaren jarraipen zorrotza eta aurea hartu arazoei.

10

## **POCTEFAk lankidetzaren oparia eskaintzen dizu, goza ezazu!**


Lankidetzan lan egiteak taldeko lana, errespetua, malgutasuna, sozializazioa edo aurreiritzi kultural eta sozialen murrizketa sustatzen ditu.

# Helburuak, inbertsio-lehentasunak eta gaiak

POCTEFA 2021-2027 programa lau Helburu Politikoren (HP) eta INTERREG helburu (Gobernantza) deritzonaren inguruan ardatzen da, eta beraien barrenean sartzen dira hainbat gairi lotutako 7 lehentasun eta 15 helburu espezifiko, honako antolamendueskemaren arabera.

## HELBURU POLITIKO BAKOITZERAKO ESLEITUTAKO DIRU-HORNIDURA

(LT gabe: POCTEFA 2021-2027 Programa kudeatzeko laguntza teknikorik gabe)



## Helburu politikoak



## Lehentasunak

- 1** Ezagutza-eta berrikuntza-gune komun bat sortzea
- 2** Balio ekologikoak babestea eta finkatzea
- 3** Lan eta trebakuntzarako sarbidea erraztea
- 4** Sozialki integratuta dagoen gune inklusibo bat eraikitzea
- 5** Turismo jasangarria eta kultura sustatzea
- 6** Eremua egituratzea lurralde, gizarte eta ekonomia ikuspegietatik
- 7** Mugaz gaindiko eremu integratu baterantz

## Helburu espezifikoak

- |   |   |  |  |   |  |  |
|---|---|--|--|---|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li><b>I</b> Ikerketa eta berrikuntza</li> <li><b>II</b> Digitalizazioa</li> <li><b>III</b> ETEen hazkuntza jasangarria</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>IV</b> Klima-aldaketa eta katastrofe-arriskuen prebentzioa</li> <li><b>V</b> Ura eskuragarri izatea</li> <li><b>VI</b> Ekonomia zirkularra</li> <li><b>VII</b> Natura babestea eta kontserbatzea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>I</b> Lan-merkatuan sartzea</li> <li><b>II</b> Hezkuntza eta trebakuntza berdintasunez eskuratzea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>III</b> Inklusio sozioekonomikoa ekintza integratuen bidez</li> <li><b>V</b> Osasun-laguntza berdintasunez eskuratzea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>VI</b> Kulturak eta turismo jasangarriak duen garrantzia indartzea</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>II</b> Landa eremuetan honako arlo hauek sustatzea: tokiko garapen soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa, garapen kulturala, ondare naturala, turismo jasangarria eta segurtasuna</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>I</b> Aginte publikoaren gaitasun instituzionala hobetzea</li> <li><b>II</b> Administrazio publikoaren eraginkortasuna hobetzea</li> </ul> |
|---|---|--|--|---|--|--|



# Prestatu POCTEFA proiektu on bat

## **Esku-hartze logika**

Mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak sortzen dira lurraldean atzemandako arazo edo behar komun batetik. Arazo hori konpontzeko, hainbat herrialdetako agenteen arteko ekintza-proposamen berritzaileak behar izaten dira. Hortik abiatuta, kidetza bat eraikitzen da eta proposatutako helburuekin koherentzia duen ekintza-plana eratzten da.

Oinarrizkoa da esku-hartze logika deritzogun koherentzia hori proiektuaren plangintzan txertatzea, bai eta POCTEFA 2021-2027 Programarekin lotzea ere: lurraldean atzemandako beharrak, helburuak, irtenbideak, emaitzak, emaitzaren adierazleak eta gauzatzea.

- 1** Identifikatu mugaz gaindiko hedadura duen arazo edo behar bat: **PROIEKTUA**
- 2** Definitu proiektuaren helburu orokorra
- 3** Kontsultatu POCTEFA programaren dokumentua eta identifikatu zein helburu zehatzak bat egiten duen zure proiektuarekin
- 4** Adierazi zure proiektuak POCTEFaren zein adierazleri lagunduko dion
- 5** Egin POCTEFaren adierazleak eta proiektuaren beraren adierazleak jasotzen dituen ekintza-plana
- 6** Egiaztatu espero diren emaitzek proiektuaren helburuak betetzen dituztela

# POCTEFA 2021-2027 adierazleak

POCTEFA 2021-2027 programak bi adierazleren bidez neurtzen du proiektuen emaitza: gauzatzeari dagozkionak, hots, proiektuaren espezifikokoak diren entregagaiekin erlazionatutakoak eta emaitzei dagozkienak, hau da, lurraldean duten berehalako eraginekin erlazionatutakoak.

Guztira, 21 adierazle hautatu dira. Horietatik 12 gauzatze prozesuari dagozkionak dira, eta 9 emaitzei dagozkienak.

## Taula irakurtzeko gakoak.

Adierazleen taula errazago irakurtzeko, kontsultatu helburu politikoen ateragarri koadroa (12. orrialdea) edo gida honetako 8. orrialdea.

## ADIERAZLEEN TAULA, AUKERATUTAKO HELBURU ESPEZIFIKOekin LOTUAK.

### Gauzatze adierazleak

<b>RCO 01</b>	Lagundutako enpresak (besteak beste, mikroak, txikiak, ertainak, handiak).	HP1  HP2  HP4 
<b>RCO 02</b>	Dirulaguntzen bidez lagundutako enpresak.	HP1  HP2  HP4 
<b>RCO 04</b>	Laguntza finantzariorik ez duten enpresak.	HP1  HP2  HP4 
<b>RCO 116</b>	Elkarrekin garatutako soluzioak.	HP2  HP4 
<b>RCO 121</b>	Klimarekin erlazionatutako katastrofe naturalen (uholdeak eta basoetako suteak ez diren) aurkako babesneurriek bere gain hartzen duten azalera.	HP2 
<b>RCO 14</b>	Zerbitzu, produktu eta prozesu digitalak garatzeko laguntza jasotzen duten erakunde publikoak.	HP1 
<b>RCO 75</b>	Lurralde-garapen integratuko estrategia lagunduak.	HP5 

**RCO 28** Basoetako suteen kontrako babesneurriek bere gain hartzen duten azalera.

HP2 

**RCO 83** Elkarrekin garatutako estrategiak eta ekintza-planak.

HP2   
 HP4   
 HP5 

**RCO 81** Elkarrekin egindako mugaz gaindiko ekintzetan parte-hartzea.

HP2   
 HP4 

**RCO 86** Batera sinatutako hitzarmen administratibo edo juridikoak.

HP5   
 IH 

**RCO 87** Mugez gaindiko lankidetzan ari diren erakundeak.

HP1   
 HP4   
 IH 

## Emitzen adierazleak

**RCR 03** Produktu edo prozesuetan berrikuntzak txertatzen dituzten enpresa txiki eta ertainak (ETE).

HP1   
 HP2   
 HP4 

**RCR 104** Erakundeek hartutako edo hedatutako irtenbideak.

HP2   
 HP4 

**RCR 11** Zerbitzu, produktu eta prozesu digital publiko berrien eta hobetuen erabiltzaileak.

HP1 

**RCR 36** Basoetako suteen kontrako babesneurrien onura jasotzen duen populazioa.

HP2 

**RCR 37** Klimarekin erlazionatutako katastrofe naturalen (uholdeak edo basoetako suteak ez direnen) aurkako babesneurrien onura jasotzen duen populazioa.

HP2 

**RCR 79** Erakundeek elkarrekin hartutako estrategiak eta ekintza-planak.

HP2   
 HP4   
 HP5 

**RCR 83** Administrazio- edo lege-hitzarmen bateratu sinatuek bere gain hartzen duten populazioa.

HP5   
 IH 

**RCR 84** Mugaz gaindiko lankidetzan ari diren erakundeak, proiektua amaitu ondoren.

HP1   
 HP4   
 OI 

**RCR 85** Mugaz gaindiko ekintzetan parte hartzea proiektua amaitu ondoren.

HP2   
 HP4 

